

KOMUNIKABIDEAK

Leku bateko eta beste berrak, gertaerak, iritziak, biziera, ohi-turak eta jokabideak jakiteko *gogoia* eta *bideak* beti izan ditu gi-zonak. Iturriak, albergak, ostatuak, sagardotegiak, azokak, errome-riak, eluz atariak eta abar ziren garaia batean, hango eta hemengo berrak jakiteko lekuak.

Erromesak, gudariak, mixiolariak eta abar izaten ziren herrial-de batetik bestera albisteak zabaltzen zituztenak. Gaztelutan, esta-tutan, eliz ataritan, bidegurutzetan eta abarretan kontatu ohi zi-tuzten hango eta hemengo pasadizuak.

Baziren gutun eramale eta albistariak ere. Baina inprimategiak sortu zirenetik asko erraztu ziren elka-rrekin harremanetan jartzeko bideak. Gaur, berriz, hauzoan gerta-tu dena baina lehenago jakin dezakegu Frantziar, Italian, Ameri-kean edo Indian gertatu dena, Munduko bazterrik apartenean gertatzen ari dena ikusten egon gaitzke lasai telebistaren aurrean jarrita.

Gaurregun sekulako garrantzia dute komunikabideek. Gero eta beharrezkoago ditu jendeak liburua, aldizkariak, egunkariak, zinea, irratia eta telebista. Herrian nor hil den jakiteko ere beharrezkoak dira egunkariak.

Giza harremanak sendotzeko, berotzeko, goxatzeko eta zuzen-tzeko bezala otertzeko, hozteko, bihurritzeko eta aldrebesteko gerta daitezke komunikabide hauek. Hauri girtenetik eusten dionak badaki zeri eusten dion. Aginteara, armada eta diruarena be-zain haundia bilaka daitezke komunikabidean indarra. Nixon aginte aukitit botatzeko hainbat indar izan dute Ipar Ameriketean. Edo-zinetak ere etsai izateko baino alde edukitzeko tresna hobeak di-tugu.

Indar tikiokoko ditugu eskaldunok geure komunikabideak. Ikus-tekoa litzateke nor eta zenbatek irakurtzen dituen eskual liburu eta aldizkariak. Batetik eskaldun gutxi da enskaraz irakurtzen ohi-tua. Euskara besterik ez dakiena ere erdaraz irakurtzen ohi-tzen. Jendeak erraztzen jotzen du.

Bestetik, erdal komunikabideen gaurkotatzen inola ez ez de-zakete izan zenbait gauzatzen.

Halere egiten dugun baino zerbitz gehiago egin dezakegu. De-non artean hobetu ditzakegu. Irakurgarriago egin ditzakegu. Azal eta mami herri-tu behar ditugu.

Euskal komunikabiderik gabe ez dezake bizirik iraun ez eus-karak eta ez euskal kulturak. Bizimale eta hiltzaile bilakutzen dira gaurregun, nahitaez, komunikabideak. Komunikabideek bakarrik ez da Herria bizi, noski. Ogi hori ere behar du ordea.

Geure hizkuntza, geure kultura, geure pentsaera eta geure jo-kabideak izateko sendotzeko eta zabaltzeko beharrezkoak ditugu komunikabideak. Eskaldunok, zoritxarrez, etxeokoa ahulak ditugu eta kanpoetan sarrearik ez dugu. Herri txiki eta ezerezaren ezau-rrari nabarmena, noski, gertaera hori. Izan ere bietarako behar da indarra. Gure ez dugu munduko komunikabide indartsuetan ezer agertzeko gumenik.

Hil ala biziko jokoa jokatzeko inardun gintzake euskal komunika-bideetan. Umea armarik arrisgarrienaz bezala jolasetan eto ga-bi-tzan dirudi. Ergelkeriak eta setakeriak alde batera utzirik lana serio eta lan serioa egiteko ordua heldu zaigu.

EUSKAL UNIBERTSITARIA

Euskal Unibertsitateak «per ana-logiam extrinsecam» bakarrik min-tzaka gaitzke. Ez da euskal Unib-ersitateirik, Euskal Herrian kokaturik eluzen Unibertsitateazk batzik. Honekin aditzaera eman nahi nu-ke, Euskal Unibertsitatea zer den badakigula. Euskara hutsez irak-sten den Goi mailako ikastetxea. Historia, hizkuntza-jakintza, senda-gintza, eta abar, euskara hutsez ira-katsiko ez diren bitartean, gu eus-kaldunok bigarren mailako herrita-rrak izango gara.

izugarria egin du 30 urte hontan. Larresorok ongi dioen bezala, eus-kal sena iluntzen ari zaigu. Euskal izatean kalitateko aldakuntza gerta-tu da gerra ondoren, «Sprung» bat, Hegel-ek esango zukeen be-zala. Euskal Herria itotzen, arnas es-tuka dago. Baina dena ez da hilletan ihar-dutzekoa. Alde pozgarri bat ere ikusten dugu Euskal Herrian: ikas-tolak, e.a. Baita Unibertsitatean ere. Eta gai hontaz ari naizenez gero, berari lo-tuko natzajo. Ez da euskal Unibertsitateirik, baina ugari dira euskal uniberts-

tariak. Unibertsitari jator, zintzo, zentzudun aunitz ditugu. Eta hain zuzen ere, Unibertsitatean ari ga-renok hemen beste kalitateko al-dakuntza bat dakusagu, onerako den aldakuntza itxaropentsua. Euskal Unibertsitaria kalitatez al-datu da azkenaldi hontan. Adibidez, gaurko unibertsitariak garbi asko ikusten du euskara dela eskaldu-nen hizkuntza bakarra. Beraz, bor-txaturik baizik ez du erdaraz hitze-gu. Elebitzaren leloa ergelak en-gainatzeko segadato bat besterik ez dela badaki. Gaurko euskal unibertsitariak ez du inongo konplejorik euskaraz hi-tzegiteko. Neskatxek ere —mirabi-le dictu— parra parra euskaraz di-hardute. Eskaldunak elkarrekin er-daraz egitea zapokeria dela, uni-bertsitari gehienek barru barruan itsatsita dadukate. Jakina, hau ez da Unibertsitatean bakarrik gertatzen den gauza. Kan-poon ere gazteriarren kontzientzia nahikoa piztu da. Baina Uniberts-i-tatean a re a go. Gizarte-jakintza, hizkuntza, kondaira... ikasten ari diren gaztek askoz aukera hobe-a dute Joxe Azurmendi gure pentsa-riari sakonak aspalditan egin zuen (edo egin zidan) galdera harekin (edo egiteko: zer da eskaldun izate-a, zertako eta zergatik euskal-dun izan?)

NUKLEAR OLAK: FUNTSARA JO BEHAR

Daitekeena da, nuklear ola edo zentral nuklearre buruz mintzatzea, eta oihartzun gutxi jasotzea. Nuklear zentralen gaia alde askotatik eta bazter gutzietan ukitua izan baita; gai umel xamarra bihurtu bait zaigu. Gal arrunta, lehenbiziko istilluak sortu zituenetik gaurregunera indar asko, «gerra» asko galdu duena. Zentral nuklearren gaiak eta arazoak holako zabalkunde-a lortzea, gutziz gertakari bixtia izan da gure errian. Baifia, nere ustez, eldri zaigu guraia gertakari honen: saihets anekdotikoak alde batera utzirik, gauzak objektiboki aztertzea. Ze, gauza bat baita zentral nuklearre buruzko mintzaldi batera frontoi batetan 3.000 lagun biltzea, eta beste bat, aurrera ala atzera jotzen ari garen jakitea eta aztertzea. Gaingiroki be-giratuak, arazo honi buruz sortu den kontzientzia, positibotzat jo gene-zake. Baifia, horra hor galdera. Sortu den kontzientzia, zer nolako kon-zientzia da? Arazoaren oinarriko atalak ukitzen dituen kontzientzia ala, alderantziz, arazoaren atal anekdotiko eta bixtietan geratzen den kon-zientzia?

Jakingarri anekdotikoz osaturiko kontzientzia bat sortu bada, gure kaltetan dijoa delako kontzientzia hori. Gure errian, tamalez, honekoi kontzientzia-motaz daude bazter guzikiak kutsaturik. Politika mailan, adibide-z, eta oportunista eta inperialista guzien ondotik ibiltzeko ohi-tura ditularik, bosgarren edo seigarren mailako problemaz ari gera geure dialektika eta indar guzikiak erretzen, geure indar guziki probatzen, gure sustraietako eta benetako problemak ukitu eta aztertu gaberik geldit-zen direla. Hori, batean batak jarri zion izena: «Euskal Primitibismoa». Eta hala da benetan, halazankoa!

Etan galdera horren aurrean eus-kal unibertsitariak bere erriaik eta Euskal Herriko kondairaren muinak aztertzen ditu, egia hau ikasteko: euskadunia izateko Euskal Herrian barrena bizi izatea da; hots, herri horrekin pozteta, herri horrekin atse-kabetea, herri horri on eriztea. Euskal Herrian barrena bizi izateko ordea, euskal kulturaz eta eus-kal hizkuntzaz jaundu behar duela ikusten du unibertsitariak. Hurrengo batean kontzientzia hartu duen unibertsitariak zer e-giten duen azaltzen saiatuko zaiz. Gaur «Zabal» eta «Hitz» aldizkari jakingarri horiek jarriko ditut exem-plu.

Central nuklearre buruz gauza bera gertatu ote den galdezka ari netzajo neure buruari. Eta gauzak diren bezala eta ez nahi gintuzkeen bezala aitortu beharra baita, zentral nuklearre buruz nahikoa metafisika egiten ari dela iruditzen zaiz. Berriro ere, politikaren ordez, metafisika egiten ari gara. Ez dut esan nahi —libra nazala Jainkoak—, Erri-osoaren mailan ha-lako kontzientzia zehatz, benetako eta orokor bat behar dugunik. Baifia bai ordea —ahal delarik—, pixu andiko gizarte-taldeen; hortarako garaia etortzekotan, heuren indarra erakutsi lezateken gizarte-taldeen. Amar urteko ume batek here amonari «zentral nuklear bat bomba nu-klear bat da, amona» esateak gora behera, ez du garrantzi andirik. Eta izatekotan, gutziz eztabaidatzeko dira halako arazoibideak. Debako arazoaren aurrean, gure onetan gerta litezke halako arazoibideak; bai-nian hemendik urte batzura, nuklear-energia beharko dugunean (ge-roago ikusiko dugunez), orduan zer?

NUKLEAR UNIBERTSITARIA. Debako arazoaz mintzatzen asi ezkerre, jendeak bajurako arrantza, turismoa, airearen kutsadura, segur-tasunik-egia eta holako gaiak darabilzki ahotan. Ez dago txarto; ezin esan daitezke Debako arazoaren kontextutik kanpo dabilzkitan. BAINA oinarriko galdera dugu zokoratu eta hori da geure erriari egin gene-zaiokenez kalterik andiena. Egin behar genezakeen galdera honako hau da: «GAURREGUN, BEHAR AHAL DU, ZENTRAL NUKLEARRIK EUSKA-LERRIAK?». Galdera hau egitean, produzio generalaren kontextoan ga-litzia. Galdera hau zokoratzean, ordea, funtsezko galdera zokoratueta metafisika egiten ari gara. Eta hori da, hain zuzen, faxismoak zein sozial inperialismoak nai dutena.

Nork idazten dituzte horko idaz-lar zorrotz horiek? Gehienak, dio-tenez, Unibertsitatean dauden edo Unibertsitatean ikasketak egin di-tuzten eskaldun bipilek. Guztiki entzun beharko genuke hoi-en mezuaz: euskal gizarte zuzen bat euskal hizkuntzan oinarritu be-har dela. Indar handiaz dator Unibertsita-teko gazteak. Itxaropentsu Euskal He-rrirako. Unibertsitari hauk izango bait dira laster Euskal Herri osora zabalduko diren sendagiel, filologo, historiagile.

Teknikoek diotenez, gutxienez 1980 urtera arte, Euskalerririk ez omen du inongo energia nuklearren beharrik. Beraz, behar izatekotan, 1980tik aurrera beharko genuke. Zenbat beharko dugun? Zehatz jakitea gutziz gauza zailla da; zailla, batez ere Iberdueroik energiarekiko prebisiok «materia reservada» deklaratu duelako berriki. Bestetik, ezin esan da-teke halako industria motak energia gehiago eta beste holako energia gutxiago beharko duenik. Badakigu, ordea, gauza bi: batetik, 1980 urtera arte, Euskalerrira «Autosuficiente» dela enplegaren aldetik; eta bestetik, 1980tik aurrera energia nuklearren beharrik dagoekala. Hau erakusten du nonbat egia den energiarekiko demandaz egindako eredu matema-tiko batek.

Bestetik, eta arazoaren funtsari eldu gaitzaikez gero, eta gauzak horrela ikusirik, beste galdera bat letorkiuke burura. «Gauzak horrela izeki, zer dela-ta Iberdueroik itsas-ertzeko 50 kilometrotan potentzia izu-garrizko iru nuklearrola jarritza?»

Hiltzeaz zegoen txekera, alde-z, txekoa unibertsitarii esker sen datu zen. Horrela gerta bedi eus-karakin eta euskal unibertsitari-ekin. Jakin behintzat, gaurko euskal unibertsitariak badaki nolako erant-zuna eman beharko dion Euskal Herriari. Hau dena, zinez, hobeko den kalitateko aldakuntza dugu.

Gotzon GARATE

Batasunaren inguruan

Batasuna. Hala bat tasuna —horixe da problema. Unio-nea, beraz: bestela hemen ez dago zer egirik. Baina he-men, guziaz gainerik, ba-goitzak batzera izan nahi du. Hemen, bakoitza benetan batzera balitz, aspaldi egirik zatekeen batasuna. Baina he-men batzera ez da bat bera eta batek batasunik egin or-duko bera ez izateko bildu-rra besterik ez du. (Nortasuna gaitzeko bildu-rrik haundiena, nortasunik gutien duenak).

akabo orduan dialektikoak. Dialektikoak beti egiten ari-tzea da. Ta beti egiten ari-tzeko, sekula ez egitea. Beraz, batasunzale dialek-tikoaren taktika hau izango da: 1. eska beza gehiena, gu-tiena ezin lortzeko; 2. sala beza gutiago eskatzen du-te-nen errebisionismoa; 3. onar bitza berak eskaintzen dituen oinarri minimoak, xedeak, baldinkizunak, eta abar, ba-karririk; 4. jartzen dituen mi-nimoak, izan bitz beste gu-zientzat inola onartu ahal izateko masimoak. (Bat gaitzeen denok nire batasunean).

Battassuna Leizarragak. Bi te eta bi ese, Bat asuna. Elkartu eta batera saiatu. Beteratasuna, hortakoz. Baina zer egin behar dute, or-duan, orjinalek? Orjinal bat, orjional bat, orjional bat, orjional bat. Oro jenial. Jeinu guti eta jeno gaizto asko.

(Bat gaitzeen denok nire batasunean). Izan ere, bestela, kontra-dizio logiko bat legoke: ba-tasunerako oinarri minimoak berak ere elkarren artean paratzen ba-lira, batasuna eginbide legoke, batasuna egin baina lehenago. Noiz esango du dialekti-koak: batasuna egiteko batu gara?

Batik batean: zirkuntantzia berdinetan. Hemen denok us-te dugu, bestearen zirkun-tantzia hobeak direla. Batasunerako oinarri mini-moa: Ni, Batasunaren helbu-ria: Nik ezin dudana zuk eta bigi egitea. Kondizioak: al-darriarik, nire kontura.

Batasuna nork bere liber-tade zati bat sakrifikatzea da: baina zer sakrifikatuko du, ezer ez duenak? Batasuna besteari liber-tade zati bat eskaintzea da: baina beretzat ez duenak, ezin besterekin partitu.

Ohar dialektikoak: batasuna-ren kontra dagoena, ezkerre-rista fanatik bat edo eskuin-istatur fanatik bat da. Bata-sunik egiten duena, egin, burges hutsa da. Dialektiko-ki iraultzailega batasuna es-kaitea da: eginez gero ez bait legoke zer eskaturik, eta

Joxe Azurmendi



JABEA:
Nafarroa, Kantauri eta Ara-goiko Kaputxinoek.
Burlada, Kale Nagusia, 50-1
Donostia, Okendo, 22
Telf. 41-95-88

Ondezkaria: Kaietano Ezeiza Iurriza

ARPIDIA SARIA:
Barruan 400 pezeta
Korreo batasune-tako herrietan 620 pezeta
Atzerrietako bes-tet herrietan 460 pezeta
Airez Aldez aurretik galdetu

Salmenta (ale bakoitza) 10 pezeta

Moldiztegia eta Idazkola:
«Gráficas Navas»
A. Adoain, 1. IRUINEA
D. L.: NA. 80-1963